

# RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


**ELIKAGAIAK**

2015ko URTEKO TXOSTENA

Alerta eta jakinarazpenen kopurua  
Jakinarazpenen kategorizazioa  
Antzemandako arriskuen jatorria  
Antzemandako arriskuak  
Azken urteen arteko konparazioa



## ALERTA ETA JAKINARAZPENEN KOPURUA

**2015an**, Europako Alerta azkarra sistemaren (RASFF) bidez **2614 alerta eta jakinarazpen** jaso dira.



## JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA



2015 urtean zehar, elikagaiei buruzko 2614 jakinarazpen izan dira. Horietatik, 704 **alertak** (%27) izan dira, 688 **informazio-jakinazpenak** (%26,5) eta 1222 **mugan egin diren ukapenak** (%46,5).



**ANTZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA**

Kutsatutako produktuen jatorriari dagokionez, urtean zehar, aipatu behar da **Asiak (%43)** eta **Europak (%39)** eragin dituztela jakinarazpen gehienak. Bai Asia eta bai Europa jatorria duten jakinarazpen kopurua igo egin da 2014 urtearekin konparatuz. Amerikakoa, aldiz, jeitsi egin da.



Urteko batezbestekoak hurrengoak izango lirateke:



**ANTZEMANDAKO ARRISKUAK**


Aurreko urtean bezalaxe, **kutsadura biologikoak** eragin ditu jakinarazpen gehien, aurreko urtekoa kopurua igoz. **Mikotoxinak** dira jakinarazpen gehien sortu dituzten bigarren taldea, bai hondakinen eta bai metalen kopurua jeitsi delarik.

Hauek dira antzemandako arriskuei dagozkien urteko neurriak eta lauhilekoka izan duten bilakaera:




.....ANTZEMANDAKO ARRISKUAK


**KUTSADURA BIOLOGIKO**aren kasuan, **Salmonella** nabarmendu behar dugu kutsadura biologikoen **%58a** eragin baitu, (urteko batez bestekoa). Honako hau izan da kutsadura biologikoez izan duten joera:



Badira Salmonella espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* y *S.enteritidis*) eta bestelako Salmonellak, azken hauek, **Salmonella exotikoak**, nabarmendu behar dugularik (**%83,5**), eta lauhileko abtean produktu desberdin bat nabarmendu da. *S.enteritidis*aren kasuan oilaskoa izan da gehien eduki duena (78,5%). Urteko eboluzioa izan da:




**MICOTOXINEN** kasuan, kasu gehienak (**%79,5**) **Aflatoxinek** eragin dituzte, **kakahueteek** kutsadura kasuen **%37a** eragin dutelarik. Kasu gehienetan produktuen jatorria Txina zen (60,5%).




..... ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

**PESTIZIDA ETA BOTIKEN HONDAKINEI** dagokionez, urteko batez bestekoa kontutan hartuz, **pestizidek %83,5a** suposatu dute, **barazkiak %47,5** suposatuz. Asia jatorria izanez kasu gehienetan (**%52<sup>a</sup>**). **Botiken hondakinak (%16,5)** eta ez da produkturik nabarmendu besteengan.

Urteko eboluzioa hurrengo hau izan da:



**Merkurioa** jarraitzen du **metal astunen** protagonista izaten (**%66,5**), kasu gehienak **ezpatarrainak** eragin dituelarik, **%60,5a**. **España** jatorria izan da **%66,5e**ko kasuetan.



## AZKEN URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

Azken urteak alderatuz gero, jasotako alertak zein jakinarazpenak aldatutu egin dira urtetik urtera. Hainbat aldaketa izan dira azken urteotan: Iruzurrak igo dira, gehien bat etiketan aipatu beharreko alergenokoak ez aipatzeagatik. Aldiz, OGMen eta produktuaren egoera higieniko txarragatik jakinarazpenak jeitsi egin dira.

